

Fabrikako atzeko atea

Lan baldintzak Indonesiako larru eta oinetako sektoreetan

“Gizarte-segurantzaren kotizatu nahi dut eta baita soldata igotzea ere, baina ez dakit nola negoziatu lantegiko zuzendaritzarekin”.

“[Etxean ekoizten duten langileak] ez daukagu lan kontraturik eta ez dugu gizarte-segurantzaren kotizatzen”.


Adierazpen hauek marka europearentzako larruzko oinetakoak ekoizten dituzten langileenak dira, 2016. urtean inkesta batean parte hartu zutenak. Fabriketako langileak salatzen duenez, soldata ikaragarri baxuak dira, gizarte-segurantza ez da ordaintzen, ez dago sindikaturik eta elkartze eskubidea erabiltzen saiatzeagatik zigor eta murrizketa handiak pairatzen dituzte. Euren etxeetan ekoizten duten elkarrizketatutako langileen egoera kezagarriagoa da: ez daukate kontraturik, gizarte-segurantzak ez die babesten eta gutxienezko soldataren zati bat bakarrik jasotzen dute.

Zapatagintza Indonesian

Oineatakoak garrantzi handia dauka Indonesiako ekonomian. Eskulan merkeak oinetako ekoizpenerako erakargarria bihurtzen du Indonesia, horregatik, sektorea zabaltzen ari da azken urteotan. Hamarkadetan zehar, enpresa askok ekoiztu dituzte euren oinetakoak Indonesian. Suitzar marka Bata lehenago txekiarra zen suizako enpresa batek, bere aktibitatea Indonesian hasi zuen 1940. urtean. 1980. urtetik aurrera, kiroleko arropako nazioarteko markek oinetakoak kantitate handietan ekoizten hasi ziren herrialde honetan. Nikek, adibidez, 1988. urtean hasi zen.

2015. urtean, Indonesia, munduko oinetako ekoizle handien artean, laugarrena zen, China, India eta Vietnamen atzetik. 1.000 milioi zapata pare ekoiztu zituen, munduko ekoizpenaren %5a. Larru eta oinetakoen industriak Indonesian, milioi erdi






Aparteko orduak

Elkarrizketek erakusten dute aparteko orduak egunero egitea ohikoa dela PT Prima Dinamika Sentosa enpresan, Ecco marka danimarkarraren eta bestelako enpresen ekoizlea. Enpresako zuzendaritzak egunero hiru edo lau ordu gehiago lan egitea eskatzen dio langilerari. Orokorrean, langileak ez dira konturatzen hori bortxazko lan modu bat denik. 30 langileen artean, lauk bakarrik (%13,3) adierazi zuten ordu gehiago lan egitera behartzen zituztela, gainontzeko 26ak, ordea, jardunaldia luzatzea erabaki zezaketela esan zuten. Horren orde irabazten duten dirua euren sarrerak hobetzeko lagundu zien. Langileren batek ordu gehiago lan egiteari ezetz esaten badio orduz geroztik aparteko orduak egiteko aukera galtzen du.

○ Oinetakoen produkzioko Javako Klusterrak

Iturria: Setianto, 2016



pertsona baino gehiago ditu langile. Zapatagintzan, laruzko oinetakoa da produktu garrantzitsuen, ekoizpenaren %49a delarik. Indonesiako oinetakoen inportatzaile nagusiak EE.BB, Belgika, Alemania, Bretania Handia eta Japon dira.

2009. urtean, Indonesiak 391 oinetako enpresa zituen. Gehienak Java irlan zeuden, zehazki Yogyakarta, Mendebaldeko Javan (Bekasi, Tangerang, Garut eta Bandungen), Ekialdeko Javan (Surabaya, Sidoarjo, Jombang) eta erdialdeko Javan. 2015. urtean oinetako fabrika gehiago ireki ziren Sumatra iparraldean. Ekoizpena Javan biltzen da batez ere, gainontzeko irlek ez dutelako behar diren azpiegiturak. Gainera, gobernua zapatagintza bultzatzen ari da Javako mendebalde eta ekialdean.

Fabriketako langileek ez bezala, etxean lan egiten duenak ez dauka ordutegi finkorik, etxean lan egiten du eta pieza bakoitzeko tarifa bat ordaintzen zaio. Lan egiten duten bitartean euren semeak zaindu ditzazkete, baina nahi gabeko aparteko orduak egiteko arrisku gehiago dute.

Lan eskubideen urraketa

Landa-azterketak egin ziren hiru eskualdeetan kokaturik dauden lau fabriketan: Semarangen, Jombangen eta Sidoarjo. Nazioartean onetsitako LANEren (Lanaren Nazioarteko Erakudearen) arauetan oinarritutako galdeketa erantzun zituzten elkarrizketatutako pertsonak, lan baldintzei buruzko oinarritzko informazioa biltzeko helburuarekin.

Horrez gain, 2015eko otsailatik 2016ko urtarrilera arte, ikerketa taldeak PT Ara Shoes Indonesiarentzat oinetakoak etxean josten zituzten 37 pertsona elkarrizketatu zituen. Enpresa hau osorik dagokio alemaniako jatorriko konpainiari, Ara.



Destaju lanen bitartez, ohikoagoa da langileek zortzi ordu baino gehiago lan egitea. Eskari gehiago dituztenean eta zapata gehiago josi behar dituztenean senideei eskatzen ohi diete laguntza. Bizilaguneei laguntza eskatu behar badiete ordaindu behar diete. Elkarrizketetan hiru emakumeetatik batek onartzen zuen euren seme-alabek lagundu behar zirela oinetakoak josten.

Lan kontratu lotesleak

Indonesiako lan legeriak aldi baterako enplegua onartzen du beti ere lantegiaren aktibitate nagusiaren parte ez denean. PT Ecco Indonesiaren langileria, Ecco sozietate danimarkarraren filiala %100ean, aldi osoan ari da enplegatzen. PT Ara Shoes Indonesian kontratuak 25 urte irauten dute gehienez. Langileek 50 urte betetzen dituztenean alde egin behar dute enpresatik, euren antzinasuna fabrian edozeina izanda ere. PT Prima Dinamika Sentosa urte beteko kontratuak eskaintzen ditu soilik, horregatik langileriak berriro eskatu behar du lana euren postuan kontratua amaitzen denean. PT Mekar Abadi Sentosa, Deichmann enpresa alemaniarrentzat ekoizten duen fabrikak, beste lantegi batzuekin batera, hiru hilabeteko kontratuak besterik ez ditu eskaintzen. Txostenaren taldeak ikertzen zuen bitartean aldaketak egon ziren eta sei hilabeteko kontratuak egiten hasi ziren.

Aldi baterako kontratuak legezkoak egiteak lan legedia urratzen du. Enpresek bi baldintzatan bakarrik erabili ditzakete: denboraldi motz baterako langile gehiago behar dutenean edota lanak enpresaren aktibitate nagusiaren parte ez direnean. Kontratu finkorik ezak langileen ezegonkortasuna eragiten du eta antolaketa sindikalari kalte egiten dio.

Elkarrizketatutako 117 langileen artean, 65 finakoak ziren (%55,6), 52k aldi baterako kontratuak zituzten (%44,4). Finko guztiek PT Ara Shoes Indonesian eta PT Ecco Indonesian egiten zuten lan, aldi baterako langileek ordea PT prima Dinamika Sentosa eta PT Mekar Abadi Sentosan.

Etxean ekoizten duten elkarrizketatuen artean ezta batek ez zuen idatzizko lan akordioak fabrikarekin.

Soldatak

PT Eccoko langileria kenduta, elkarrizketatutako langile guztiek esan zuten euren soldatak (apartaeko orduak barne) oinarritzko beharrak asetzeko eskasak zirela. Honek eragiten du langileriak lan zama handia hartu behar izatea eta aparteko orduen menpe egotea bizirauteko. Gainera, Indonesiako eskualde guztietako gutxieneko soldatak duinak izatetik oso urrun daude. PT Mekar Abadi Sentosak ordaintzen duena, adibidez, eskualdeko legezko gutxieneko soldatetik hurbil omen dago, langileriak astean sei egun lan egin behar du, baina. Bestalde, 2016. urtean gutxieneko soldatak eskualdeko soldata duin baten %60a besterik ez zuen osatzen, Lan Ministerioak 2012an egindako kalkuluen arabera. Aparteko orduak sartu arren oinarritzko beharrak asetu ahal ez izateak, galdetutako langile gehieneei gertatzen zaien bezala, Giza Eskubideen Deklarazio



Unibertsaleko 23 (3). artikuloa urratzen du. Hildo berean, PT Prima Dinamika Sentosak gutxieneko soldatetik behera ordaintzea legez kanpo dago Indonesiako legearen arabera.

Etxean ekoizten duen langileriaren egoera

Elkarrizketetan, etxeko langileriaren %87k baieztatu zuen PT Ara Shoes Indonesiarentzako jostun lanetatik soilik lortzen zituztela euren diru sarrerak. Fabrikak ez die eskaintzen tresnarik, ez lehen laguntzarako botika-kutxarik ezta josteko erremintarik. Langile hauek, oinetako palak zoletara josteaz arduratzen dira, baina enpresak haria eta behatz-babeski bakarria ematen die, zerbait puskatzen baldin bada jostunak berak erosi behar du. Langile hauek diotenez, lantegiak ez die ematen josteko ezinbesteko zenbait tresna, hala nola, gantxo eta punzoiak.

PT Arak pieza bakoitzeko tarifa bat ordaintzen dio etxean ekoizten duen langilerari. Orokorrean, hamar pare oinetako bi poltsa jasotzen dituzte eta bi egun dituzte hauek josteko. Nahiz eta hamarrek egun berean bukatu, ahalegina eta diru sarrerak oinetako motaren arabera izaten dira; Hau da, sandaliak edo botak direnen arabera ezberdin kobratzen da eta ahalegina ere ezberdina izango da. Enpresak kalkulatu du josteko behar den denbora. Hala ere, emaitzak etxeko langileriaren eskarmentuaren arabera ezberdinak dira. Araren arabera, kolektibo honek 1.354.850 rupia (92,6 euro) jasotzen ditu hilabetean (40 orduko jardunaldirengatik), eskualdeko gutxieneko soldatetik gertu (1.640.000 rupia = 112,1 euro). Etxean ekoizten duen elkarrizketatutako langileriak, ordea, kalkulu hauek irrealak zirela adierazi zuen.

Hurrengo orrialdeko taulan 405.900 rupiako (27,74 euroko) hilabeteko batz besteko soldata agertzen da, Semarangeko gutxieneko soldataren laurdena da. Argi dago soldata hori baxuegia dela oinarritzko beharrak asetzeko. Elkarrizketatuen %87k baieztatu zuen hipotesi hori eta gainontzeko %13ak ez zuen galdera hori erantzun. Oinetakoen kalitateak ez badu lantegiaren baldintzak betetzen etxean ekoizten duten langileek isun bat ordaintzera behartuak izan daitezke.

2015. urtean, SÜDWINDek etxean lan egiten zuen langileen kexak bidali zituen Araren alemaniako egoitzara. Handik gutxira, enpresak gauza batzuk hobetu zituen: soldatak igo zituen, botika-kutxak jarri



Etxean ekoizten duen langileen soldata
(ikerketaren kalkuluak)*

Eredua	10 oinetako pareren truke ordaintzen dena		Behar den denbora (minutuetan)	Desplazamendu gastuak kendu eta geroko soldata, indonesiar rupiatan [euroak]
	(Rupiak)	(Euroak)		
Ancona Sepatu	35.000	2,39	60	397.000 [28,2]
Ancona Sepatu Sandal	35.000	2,39	40	715.500 [50,8]
Bota baxua	42.000	2,87	90	269.600 [19,1]
Bota	42.000	2,87	115	158.817 [11,3]
Mokasina A	19.000	1,29	40	278.700 [19,8]
Mokasina B	26.000	1,78	40	469.800 [33,4]
Mokasina C	29.000	1,98	40	551.700 [39,2]
Bataz bestekoa	32.571	2,22	60,7	405.874 [28,8]

*Taulan agertzen diren datuak kalkulatzeko, zapata pare bat josteko zenbat denbora eta dirua behar den, elkarriketetan oinarritu dira. Gainera, bataz besteko 240.000 rupia kendu ziren hilabeteko (16,4 euro) merkantziaren bila joateko desplazamendu gastu gisa.

zituen biltegietan, osasun instalazioak eraiki zituen eta oinetako poltsa berriak eman zizkien.

Alde batetik, neurri hauek ondo hartzen dira, Arak erantzunkizunak har ditzakeen eta etxeetako langileen egoera erraz hobetu dezakeen seinale bai da. Hala ere, sakoneko arazoak ez dira guztiz konpondu.

Argitalpenaren datuak

Argitaratze data: 2017ko azaroa
Egilea: Anton Pieper i Prshasti Putri
Edizioa: Vera Schumacher
Edukien erantzule legala: Martina Schaub
Diseinua: www.pinger-eden.de
Euskarazko itzulpena: Itziar Perez (SETEM Nafarroa)
Euskarazko edizioa: Itziar Perez (SETEM Nafarroa),
Alba Trepas (SETEM Federazioa)
Maketazioa: Concepte Gráfico

Argitalpena:

SÜDWIND e.V.-ren eskutik

Kaiserstraße 201 · 53113 Bonn · Tel.: +49 (0)228-763698-0
info@suedwind-institut.de · www.suedwind-institut.de

INKOTA-netzwerk

Chrysanthenenstr. 1-3 · 10407 Berlin
Tel.: +49 (0)30-420 8202-0 · inkota@inkota.de · www.inkota.de

Trade Union Rights Centre (TURC)

Jl. Mesjid 2, No. 28 · Pejompongan · Jakarta Pusat, 10210
Tel.: +6221-5744655 · www.turc.or.id

Markek duten erantzunkizuna euren hornitzaileengan

Lan arauen urraketa larrienak PT Prima Dinamika Sentosak egindakoak dira zalantzarik gabe. Fabrika honek PT Ecco Indonesia hornitzen du, lan baldintza on samarrak dituena. Izugarriko kontraesan honen arrazoia da, PT Ecco Indonesiak bete behar duela bere enpresa nagusiak Danimarkan ezartzen dion jokaera kodigoa, eta ez, ordea, bere hornitzaileek. PT Prima Dinamika Sentosak, gainera, askatasun sindikala debekatu du eta langileriak ezin ditu bere lan eskubide kolektiboak aldarrikatu, egoera larriagotu egiten delarik. Adibide honek argi uzten du ez dela nahikoa marka batek eta bere filialak kodigo etiko bat izatearekin, kate hornitzailea osatzen duten enpresa guztiek bete beharko lukete kodigo hori, guztientzat izan beharko litzateke lotesle.

Ondorioa

Nahiz eta hasierako lorpen handiak egon diren lan baldintzetan eta lege kopuru handia egon, arau hauek betetzea falta da. Ezinbestekoa da lan baldintzak hobetzea Indonesiako larru eta oinetakoen industrian. Zentzu honetan, gehien kalteturik agertzen den kolektiboa etxean ekoizten duen langileria da, babesik gabe prekaritate izugarriko egoerak pairatzeko arriskua baitdauka, soldata baxuak jasotzen dituelarik eta elkartzeko eskubiderik ez duelarik. Enpresek oinarriko giza eta lan eskubideak kate hornitzaile guztian zehar errespetatzeko erantzunkizuna due.

Elkartzeko askatasuna bermatzen baldin bada lan baldintza asko hobetuko dira, langileriak taldean negoziatzeko aukera izango baitu fabriketako zuzendaritzekin. Horregatik, hiritargoak eta giza mugimenduek benetazko aldaketak lortzeko presioa egin behar dute. Legezko lan araudia bete dadila eta enpresen gaineko kontrola bermatu dezaten aldizkako ikuskaritzak exijitzea da euren bete beharra. Hala ere, garrantzitsuena langileria informatzea eta ahalduntzea da, sindikatu ahal daitezen.

Ikerketa hau Aldatu Zure Zapatak kanpainaren zatia da, 15 Europar erakundek eta Asiako 3k osatzen dute kanpainia, elkar batu dira larru eta oinetakoen industrien arazoak salatzen. Kanpainiako ikerketak Chinan, Indian, Indonesian, Ekialdeko Europan, Italian eta Turkian egin dira, larru eta oinetako sektorearen giza baldintzak hobetzeko helburuarekin.

Txosten honek Europar Batasunaren et Kirchlicher Entwicklungsdienst by Brot für die Welt - Evangelischer Entwicklungsdienst y Engagemen ten diru laguntza jaso du, Alemaniako Ekonomia eta Garapenerako Lankidetzeta Ministerioaren bitartez. Dokumentu honen edukien erantzunkizuna Aldatu Zure Zapatak-ena da soilik.

